



Azaroaren 9a / 9 novembre

## **Mündüko errugbi kopa Altzaiko eskolan ere...**

Urte hatsarre hontan, mündüko errugbi kopa jarraiki dügü. Parada izan da guretako ikasgai desberdinen lantzea manera desberdinez. Geografian, hogei herrialde parte harzaleak lantü dütügü: hiribürüak, kontinenteak, eremüak, jentetzea, planisfera batetan kokatzea... ikerketa horiek taldeka egin dütügü tresna desberdinen erabiltez: ordenagailüak, kartak, hiztegiak, geografia libürüak.

Bestalde matematikak ere lantü dütügü manera desberdinetan: adibidez, zenbaki handiak lantü dütügü herri desberdinen jentetzea konparatzez, gehitez. Eta ürrentzeko, arte lana egin dügü ere Romeo Britto artista bezala. Herri bakotxaren bandera ezagütü ondoan, berriz egin dütügü bi jokülari marrazki baten apaintzeko (argazkian bezala). Proiektü horrek motibazione bat ekarri deikü urte horren hasteko manera desberdinez!



Altzaiko eskolako handiak

Azaroaren 16a / 16 novembre

## **Leizetako kontzertuak**

Guk Sarako San Josepe CMko haurrak, beste herriko CMko beste ikasleekin, leizeetan kantatzeko Kalakan taldeari lotu gira. Urriaren 6 eta 7an, Kalakan-ek antolatu gualdian bi kontzertu eman ditugu, Berçaits anaiak, Allegria taldea (Bigorra) eta Aguamadera (Argentina) gurekin

Zirela. Jean-Michel eta Xanekin irail osoan Jean-Baptiste Elizanbururen 3 kantu errepikatu ditugu: "Apexa eta lorea", "Nere etxea", "Agur nere herriari". Kontzertu bukaeran denek elgarrekin kantatu dugun "Sagarra jo" prestatzeko. Jean-Baptiste Elizanbururen kantuak hautatu ditugu XIX. mendeko Sarako bertsolaria zelako. 300 pertsonen aitzinean kantatzea biziki gustatu zaigu, pixka bat beldurtuak baldin baginen ere. "Sagarra jo", azken kantuarekin, gure indar guziak eman ditugu.



Sarako San Josep eskola

Azaroaren 23a / 23 novembre

## **Momentu gozagarria Doni Petri eskolan**

Gure eskolan dastamenaren astea urriaren 9tik 13ra iragan da, gure plazerrik handienerako! Ostegun goizean, eskola sukalde erraldoi bihurtu zen eta gure sukaldari txikiek goiz osoa sukaldatu zuten: txokolatzeko bixkotxak, fruituen entsaladak, matahamiak... zer plazerra! Arratsaldeko 3:30etatik goiti, dastatze kolektiboa egin genuen, txikien eta handien gozamenerako! Plazer handia hartu genuen elkarrekin egon, bazkaldu eta une goxo bat partekatzean. Prest gira heldu den urtean lan esperientzia hau berriz egiteko eta errezetak berritzeko!



Hiriburuko Jondoni Petri eskola

Azaroaren 23a / 23 novembre

## **Antzerkilaria gelan proiektua**

2023ko martxoan Largenté ikastetxeko CM2 eta seigarrenak Baigorriko Oronozia aterpetxera joan ginen autobusez. Baigorriin "Axut" antzerki taldearen kide den Arantxa Hirigoienekin antzerkia muntatu genuen, Zanpantzarren auziaren Inguruan. Hiru egunez Baigorriko Oronozia aterpetxean egon gira antzerkiaren testua idazten. Testua idatzi ondotik lan taldeak egin ditugu eta auzia antzezten ikasi dugu. Goizetan lan anitz egiten genuen eta arratsaldeak libre genituen. Arratsalde batez Baigorri herrirka bisitatu dugu eta Xexilik antolatu zuen pista jokoa egin dugu! Sobera ongi eta irringarria zen! Beste egunetan pilotan eta futboleak jolastu gira. Gau batez istorio kontalari bat etorri da guri istorioak kondatzera. Bere istorioak irringarriak ziren! Hiru egunak bikainak izan dira eta gainera elurra ukan dugu! Ateraldi horren ondotik gure antzerkia Largenté ikastetxean antzeztu dugu gure gurasoen aitzinean. Egia erran piska bat lotsatuak ginen!



LARGENTE ikastetxeko CM2 eta seigarrenak